

Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan

Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil: El Entorno Educativo
de la Atención Temprana



Arreta Goiztiarreko Marko-Plana
Plan Marco de Atención Temprana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra
Hezkuntzaren Baitan

Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil: El Entorno Educativo
de la Atención Temprana

Arreta Goiztiarreko Marko-Plana
Plan Marco de Atención Temprana



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Equipo de Atención Temprana (EAT)

Marisa Belaustegi (B06 Berritzegunea)

Carmen Cuesta (G01 Berritzegunea)

María del Carmen Fernández (B01 Berritzegunea)

Isabel Galende (Berritzegune Nagusia)

Nere Inda (Berritzegune Nagusia)

Antonio Luengo (B02 Berritzegunea)

Noel Meabe (G03 Berritzegunea)

Begoña Olaskoaga (G01 Berritzegunea)

Igone Orbea (A01 Berritzegunea)

Miren Rojo (A01 Berritzegunea)

Ramón Muñoz (Coordinador del EAT)

Edición: 1.ª, agosto de 2015

Tirada: 4.000 ejemplares

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura

Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I
01010 Vitoria-Gasteiz

Diseño: *EkipoPO*

Impresión: mccgraphics

D.L.: BI 1211-2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Arreta Goiztiarreko Taldea (AGT)

Marisa Belaustegi (B06 Berritzegunea)

Carmen Cuesta (G01 Berritzegunea)

María del Carmen Fernández (B01 Berritzegunea)

Isabel Galende (Berritzegune Nagusia)

Nere Inda (Berritzegune Nagusia)

Antonio Luengo (B02 Berritzegunea)

Noel Meabe (G03 Berritzegunea)

Begoña Olaskoaga (G01 Berritzegunea)

Igone Orbea (A01 Berritzegunea)

Miren Rojo (A01 Berritzegunea)

Ramón Muñoz (AGTaren koordinatzailea)

Argitaraldia: 1.a, 2015eko abuztua

Ale-kopurua: 4.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I
01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua: EkipoPO

Inprimaketa: mccgraphics

L.G.: BI 1211-2015

Presentación

El Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura ha participado de manera muy activa en el diseño del nuevo marco de la Atención Temprana que se está configurando en el País Vasco. Participó en la definición del Modelo y, desde entonces, en todas las actuaciones de carácter interinstitucional tendentes a darle soporte normativo. También ha colaborado en cuantas acciones se han puesto en marcha por las otras instituciones sociales y sanitarias, incluyendo actuaciones formativas conjuntas. Todo ello facilita el desarrollo de un lenguaje común y la comprensión de que la Atención Temprana es una responsabilidad compartida.

El Departamento es consciente del papel central que el sistema educativo juega en la atención al desarrollo infantil. Por ello ha dispuesto la creación de estructuras estables, en el ámbito de los Servicios de Apoyo, para la configuración de un Plan Marco que integre todas las actuaciones educativas en este ámbito.

Una de las actuaciones más relevantes diseñada hasta el momento tiene que ver con la necesidad de realizar un seguimiento cercano del desarrollo infantil. Presentamos el **Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil**, cuya primera fase, denominada **Vigilancia Rutinaria del Desarrollo** se pone en marcha el próximo curso 2015-16 en las aulas de 2 y 3 años, quedando para el curso 2016-17 su extensión a las de 4 y 5 años. El objetivo es **detectar tempranamente posibles alteraciones del desarrollo que puedan generar necesidades específicas de apoyo educativo**.

La puesta en marcha de este proceso, requerirá un gran esfuerzo formativo, focalizado no solo en el profesorado de Educación Infantil, sino también en el profesorado consultor, de apoyo y otros especialistas. Más de 3000 profesores y profesoras accederán a esta formación el próximo curso 2015-16. Una formación que este Departamento considera imprescindible para la consecución del objetivo señalado.

Por tanto, iniciamos un proceso que responde a la preocupación por detectar e intervenir tempranamente en las dificultades en el desarrollo desde el ámbito escolar, siempre en colaboración con los servicios sanitarios y sociales. Estamos convencidos de que responderemos mejor a las necesidades actuales y futuras de todo nuestro alumnado, de sus familias y la comunidad educativa, garantizando al tiempo la equidad y el respeto a la diversidad en un contexto inclusivo.

Begoña Garamendi Ibarra

Directora de Innovación Educativa

Aurkezpena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak modu oso aktiboan parte hartu du Euskal Autonomia Erkidegoan eratzen ari den Arreta Goiztiarreko esparru berriaren diseinuan. Eredua zehazteko prozesuan esku hartu zuen eta, harrezkero, eredu horren euskarri izatera bideratutako erakunde-jardun guztietan parte-hartu da. Gizarte- eta osasun-arloko beste erakunde batzuek abiarazitako ekintzetan ere laguntzaile izan da, baterako prestakuntza-ekintzak ere barnean hartuta. Horri guztiari esker, Arreta Goiztiarra guztion artean partekatutako erantzukizuna dela ulertu eta hizkuntza bateratua garatu ahal izan da.

Saila jabetzen da hezkuntza-sistemak funtsezko eginkizuna betetzen duela haurren garapenarekiko arretan. Horregatik, Laguntza Zerbitzuen eremuan, egitura egonkorrak sor daitezzen xedatu du, eremu horretako hezkuntza-jardun guztiak bilduko dituen Esparru Plana eratuz.

Orain arte diseinatutako jardun garrantzitsuenetako bat haurren garapenari jarraipena gertutik egiteko premiarekin loturik dago. Hau horrela, **Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa** aurkeztu dugu; protokoloaren lehen fasea —**Garapenaren Ohiko Zaintza**— datorren 2015-16 ikasturtean abiaraziko da 2 eta 3 urteko haurren geletan, eta 2016-17 ikasturtean, aldiz, 4 eta 5 urteko haurren geletara zabalduko dugu. Helburua zera da, **garapenean izan daitezkeen nahasmenduak goiz detektatzea, hezkuntza-laguntzarekin lotutako premia espezifikoak eragin ditzaketan trataera ematea.**

Prozesu hori abiarazteko, prestakuntzan lan handia egin beharko dugu, Haur Hezkuntzako irakasleekin ez ezik, irakasle aholkulari, laguntzaile eta bestelako espezialistekin baita ere. 3.000 irakaslek baino gehiagok jasoko dute prestakuntza hori 2015-16 ikasturtean. Sail honen ustez, prestakuntza hori jasotzea ezinbestekoa da lortu nahi dugun helburua bete nahi badugu.

Hortaz, garapenean dauden zailtasunak detektatu eta eskola-eremutik esku hartzeko prozesuari ekingo diogu, betiere osasun- eta gizarte-arloko zerbitzuen laguntzarekin. Ziur gaude horrela eginez gero gure ikasle, familia eta hezkuntza-komunitate guztiaren egungo eta etorkizuneko premiei hobeto erantzungo diegula, eta aldi berean, ekitatea eta aniztasunarekiko errespetua bermatuko ditugula testuinguru inklusibo batean.

Begoña Garamendi Ibarra

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria

Índice

Presentación	4
Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil: el entorno educativo de la atención temprana	8
1. El cribado, despistaje o screening.....	8
2. Procesos de cribado en Educación Infantil.....	10
3. Vigilancia Rutinaria del Desarrollo	12
3.1. Escalas de Observación del Desarrollo Infantil (EODIs).....	12
4. Detección Específica	18
5. Valoración e intervención educativas.....	22
6. La derivación a otros servicios	22
7. La participación de las familias.....	24
8. Instrucciones y recomendaciones para la utilización de las EODIS	24
8.1. Ámbito de aplicación	24
8.2. Intervalo temporal de aplicación.....	24
8.3. Condiciones físicas y del entorno	24
8.4. Materiales necesarios	26
8.5. Orden y contenidos de la aplicación	26
8.6. Formatos disponibles	28
8.7. Observación del lenguaje.....	28
8.8. Observación del alumnado en situación de riesgo	30
8.9. Apoyo de otros profesionales en el proceso de observación.....	30
8.10. Adaptaciones y ensayos.....	30
8.11. Otras precisiones sobre los contenidos de las Áreas y su observación	32
9. Bibliografía.....	40
Anexos: Escalas de Observación del Desarrollo Infantil (EODIs).....	44
Formato individual: 2, 3, 4 y 5 años	47
Formato para cuatro cursos	69
Formato de aula: 2, 3, 4 y 5 años.....	79

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan	9
1. Baheketa, hautematea edo <i>screening</i> -a	9
2. Baheketa prozesuak Haur Hezkuntzan	11
3. Garapenaren Ohiko Zaintza	13
3.1. Haurren Garapena Behatzeko Eskalak (HGBEak).....	13
4. Detekzio Espezifikoa	19
5. Hezkuntza arloko balorazioa eta esku-hartzea	23
6. Beste zerbitzu batzuetara bideratzea	23
7. Familien parte-hartzea.....	25
8. HGBEak erabiltzeko jarraibide eta gomendioak.....	25
8.1. Aplikazio-esparrua	25
8.2. Aplikazioaren denbora-tartea	25
8.3. Baldintza fisikoak eta inguruneak.....	25
8.4. Behar diren materialak	27
8.5. Aplikazioaren ordena eta edukiak.....	27
8.6. Formatu erabilgarriak.....	29
8.7. Hezkuntzaren behaketa.....	29
8.8. Arrisku-egoeran dauden ikasleen behaketa.....	31
8.9. Beste profesional batzuen laguntza behaketa-prozesuan	31
8.10. Egokitzapenak eta saiakuntzak	31
8.11. Arloetako edukiei eta horien behaketari buruzko bestelako zehaztapenak.....	33
9. Bibliografía.....	41
Gehigarriak: Haurren Garapena Behatzeko Eskalak (HGBE).....	45
Banakako formatua: 2, 3, 4 eta 5 urte	47
Lau ikasturteko formatua.....	69
Ikasgelako formatua: 2, 3, 4 eta 5 urte.....	79

Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil: el entorno educativo de la atención temprana

Hablar de una intervención temprana en los trastornos del neurodesarrollo o en las situaciones de riesgo exige un proceso de detección, igualmente temprano, que facilite la prevención de posibles patologías subyacentes en este ámbito. En la práctica, y entre otras medidas posibles aunque de menor envergadura, este proceso de detección pasa por la puesta en marcha de procedimientos sistemáticos de observación del desarrollo para valorar la presencia de sospechas, alertas o indicadores de esos trastornos, además de tener en cuenta situaciones objetivas de riesgo de padecerlos (la prematuridad podría considerarse un ejemplo de estas situaciones objetivas).

I. El cribado, despistaje o *screening*

El concepto de **cribado, despistaje** o **screening** está asociado habitualmente al campo de la salud y se considera una herramienta importante para abordar, desde una perspectiva preventiva, la disminución de problemas de este tipo. Se trata de un examen realizado a personas asintomáticas, "sanas", con objeto de identificar en fase de latencia las que presentan determinada enfermedad o muestran un riesgo incrementado de padecerla¹.

El cribado **no es una prueba diagnóstica**, ni siquiera en aquellos casos que puedan resultar más evidentes "a priori". Las pruebas diagnósticas se aplican a personas que muestran un problema o problemas definidos, son individuales, son más precisas y permiten proponer una intervención. El cribado, sin embargo, se aplica en grupo, no tiene un nivel alto de precisión y solo **señala riesgo**.

Aunque puede considerarse una herramienta potente, su eficacia depende de que su implementación suponga un proceso ordenado y explícito, y de que a la vez se encuentre integrado en un programa más amplio que le ofrezca fundamento. Debe posibilitar, también, una toma de decisiones, igualmente fundamentada. Desde esa perspectiva, que este tipo de programas sean frecuentes en el ámbito sanitario, no significa que sean exclusivos de este campo. La intervención psicosocial y la educativa pueden abordar programas similares, obviamente con otros objetivos, pero con la misma finalidad de realizar una intervención preventiva sobre posibles dificultades no detectadas. Un cribado de lenguaje escrito en 2º de Educación Primaria (momento en el que habitualmente se considera que se ha producido la automatización de la lectoescritura) realizado en un centro, grupo de centros, territorio, etc. podría ser un ejemplo del uso del cribado en un ámbito distinto al de la salud.

Sin duda, un proceso de cribado presenta notables ventajas. La más importante es que, aunque no es un diagnóstico, puede permitir la detección de problemas que posteriormente pueden ser

¹Cribado según la OMS: aplicación sistemática de una prueba para identificar a individuos con un riesgo suficientemente alto de sufrir un determinado problema de salud como para beneficiarse de una investigación más profunda o una acción preventiva directa, entre una población que no ha buscado atención médica por síntomas relacionados con esa enfermedad (Wald, 2001).

Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan

Neurogarapenaren nahasmenduetan edo arrisku-egoeretan esku-hartze goiztiarraz hitz egiten badugu, detekzio-prozesua ere beharrezkoa dela esan nahi du horrek. Detekzioa ere goiztiarra, azpian ezkuta daitezkeen patologien prebentzioa ahalbidetzeko eremu baita. Praktikan, detektatzeko prozesu horretan, garapena behatzeko prozedura sistematikoak abiarazi behar dira nahasmendua adierazten duen susmorik, alertarik edo adierazlerik ba ote dagoen balioesteko. Horretaz gain, nahasmenduak izateko arrisku-egoera objektiboak aintzat hartu behar dira (egoera objektibo horietako bat prematuritatea izan daiteke).

I. Baheketa, hautematea edo *screening*-a

Baheketaren, hautematearen edo *screening*aren kontzeptua, ohiko moduan, osasunaren arloarekin loturik dago eta funtsezko tresnatzat hartzen da, prebentzioarekin ikuspegitik begiratuta, horrelako arazoak murrizteko. Sintomarik ez duten pertsonen, hau da, "osasuntsuei", egiten zaien azterketa da, gaixotasun jakin bat latentzia-fasean dutenak edo gaixotasun hori izateko arrisku areagotua dutenak identifikatzearren¹.

Baheketa **ez da proba diagnostiko bat**, ezta "a priori" nabarmen izan daitezkeen kasuetan ere. Proba diagnostikoak arazo jakin bat edo batzuk dituztenei aplikatzen zaizkie, indibidualak dira, zehatzagoak dira eta esku-hartze bat proposatzeko aukera ematen dute. Baheketa, berriz, taldean aplikatzen da, ez du zehaztasun-maila handirik eta **arriskua baino ez du adierazten**.

Tresna garrantzitsutzat har daiteke, baina probaren eraginkortasuna ez da handia izango ez bada prozesu ordenatu eta esplizitu baten arabera ezartzen, eta aldi berean, ez badago oinarria emango dion programa zabalgo baten barruan txertatuta. Era berean, erabakiak hartzeko prozesu oinarriduna ere ahalbidetu behar du. Ikuspegi horretatik begiratuta, osasun-eremuan horrelako programak maiz agertzeak ez du esan nahi soilik eremu horretan ager daitezkeenik. Esku-hartze psikosozialean eta hezkuntza-arloko esku-hartzean antzeko programak bil daitezke, helburuak desberdinak izanik noski, baina detektatu gabeko zailtasun posibleen gainean prebentzioko esku-hartzea gauzatzeko xede bera dutena. Osasuna ez den eremu batean baheketaren erabileraren adibide bat honako hau izan daiteke: Lehen Hezkuntzako 2. mailan hizkuntza idatziaren baheketa egitea (maila horretan uste baita idazketa eta irakurketa automatizatuta daudela) ikastetxe batean, ikastetxe multzo batean, lurralde batean...

Zalantzarik gabe, baheketa-prozesu batek abantaila handiak ditu. Garrantzitsuena zera da, diagnostikoa ez den arren, gerora diagnostika daitezkeen arazoak detektatzeko aukera ematen duela eta, beraz, goiz

¹Baheketa OMEren arabera: osasun-arazo jakin bat izateko arrisku handi samarra duten eta ikerketa sakonago bat edo zuzeneko prebentzio-ekintza bat egitea mesedegarri suerta dakiekeen banakoak identifikatzeko proba bat modu sistematikoan aplikatzea, gaixotasun horrekin lotutako arreta medikorik eskatu ez dutenen artean (Wald, 2001).

diagnosticados y, por tanto, se podrá intervenir tempranamente sobre ellos. Además, no suelen ser pruebas invasivas, agresivas o que requieran de gran aparataje. En el ámbito educativo, los cribados presentan a menudo la forma de escalas de observación o de pruebas pedagógicas de fácil realización o pasación y suelen tener un correlato elevado con la propia práctica educativa.

Sin embargo, es necesario señalar que un proceso de cribado también presenta algunos riesgos. Quizá el más importante sea la posibilidad de una interpretación sesgada o errónea de los resultados y la ansiedad derivada de los falsos positivos.

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto, no cabe duda de que los procesos de cribado pueden ser instrumentos de gran valor en el ámbito de la Atención Temprana y más específicamente en el ámbito educativo. Como se ha explicado antes, una pronta intervención en los trastornos del desarrollo debe permitir reducir su impacto en el bienestar de los niños y niñas, facilitando que alcancen la mayor competencia y autonomía personal posible. Además, incluso en el caso de que de la propia intervención no se derivara un beneficio claro y distinto para los niños y niñas, sin duda supondría una reducción de la ansiedad de sus progenitores y tendría un impacto positivo en el funcionamiento familiar².

2. Procesos de cribado en Educación Infantil

Por todo ello, y de acuerdo con el modelo de Atención Temprana que se está implantando en la CAPV y el Plan Marco en el que se integran todas las actuaciones educativas, se ha propuesto la **implantación de un proceso sistemático de observación en la Etapa de Educación Infantil, con el fin de detectar dificultades o alteraciones del desarrollo, que puedan generar necesidades educativas específicas de apoyo educativo**. Este proceso de *screening* se realizará a los 2, 3, 4 y 5 años, de acuerdo con la propia estructura de la Etapa. Incluirá, en una primera fase, la observación de determinados ítems del desarrollo a través de instrumentos elaborados con ese objetivo (Escala de Observación del Desarrollo Infantil, EODIs). En una segunda fase, y solo en aquellos casos en los que se hayan detectado dificultades o retraso en las áreas del desarrollo, se utilizarán pruebas de *screening* específicas y estandarizadas, con el fin de objetivar la necesidad de una intervención. En este último caso, la necesidad de una mayor precisión viene exigida por la convicción de que a la detección de dificultades debe seguir una intervención que las afronte, para reducir o superar las barreras que puedan suponer para el aprendizaje. Esto aconseja la utilización de herramientas específicas y estandarizadas que ofrezcan una mayor solidez a las propuestas de intervención.

A la primera fase la llamamos **Vigilancia Rutinaria del Desarrollo**, mientras que las actuaciones derivadas de ésta, cuando sus resultados requieran una valoración más precisa, llevarán el nombre de **Detección Específica**. Ambas fases configuran un proceso de detección que debe situarse en el ámbito ordinario de la actividad educativa.

En el cuadro siguiente se expone de manera sinóptica las fases del **Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil**, así como los agentes participantes, ya sea de manera directa o en tareas de asesoramiento.

² Artigas-Pallarés, J. Intervención temprana en los trastornos del neurodesarrollo pp. 455-467.

esku hartu ahal izango dugula arazo horiei dagokienez. Gainera, probak ez dira inbaditzaileak, ez dira agresiboak eta ez dute tresneria handirik behar izaten. Hezkuntza-eremuan, kasu askotan, baheketak erraz egiteko edo gauzatzeko moduko proba pedagogikoak edo behaketa-eskalak izaten dira, kasu askotan, eta hezkuntza-jardunarekin berarekin korrelato handia izaten dute.

Dena den, baheketa-prozesu batek arriskuak ere izan ditzake. Garrantzitsuena, agian, honako hau da: emaitzak oker edo partzialki interpretatzeko aukera, eta positibo faltsuek eragindako herstura edo antsietatea sortaraztea.

Orain arte azaldutakoa aintzat hartuta, zalantzarik gabe, baheketa-prozesuak balio handiko tresna izan daitezke Arreta Goiztiarraren eremuan eta, zehazki, hezkuntzaren eremuan. Lehen ere azaldu dugunez, garapenaren nahasmenduetan garaiz esku hartuz geroz, nahasmenduak haurrengan izan dezakeen eragina murriz daiteke, eta ahalik eta autonomia pertsonal eta gaitasun handiena lortu ahal izango dute. Horretaz gain, esku-hartzeak haurrei onura argi eta berezirik eragingo ez balie ere, zalantzarik gabe, familiarengan herstura gutxituko lukeeta familiaren funtzionamenduan eragin positiboa izango luke².

2. Baheketa prozesuak Haur Hezkuntzan


Horregatik guztiagatik, eta EAEn ezartzen ari den Arreta Goiztiarreko ereduari eta Marko-Plana honi jarraiki, **Haur Hezkuntzako etapan behaketa-prozesu sistematikoa ezartzea proposatu da, zailtasunak edo garapenaren gorabeherak detektatzeko asmoz, zailtasun edo gorabehera horiek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak eragin ditzaketen heinean.** *Screening* prozesu hori 2, 3, 4 eta 5 urterekin egingo da, Etaparen egituraren beraren arabera. Lehen fasean, garapeneko item jakin batzuk behatu behar dira horretarako prestatutako tresnen bitartez (Haurren Garapena Behatzeko Eskalak, HGBEak). Bigarren fasean, eta garapenaren arlo guztietatik zailtasunak edo atzerapena dagoela detektatu den arloetan, *screening* proba espezifikoak eta estandarizatuak egingo dira, esku-hartzearen premia objektibatze asmoz. Azken kasu horretan, zehaztasun handiagoa behar izaten da honako uste hau zabaldua dagoelako: zailtasunak detektatu ondoren, zailtasun horiei aurre egiteko esku-hartzea egin behar dela, ikaskuntzan eragin ditzakeen oztopoak murriztu edo gainditzearen. Horretarako tresna espezifikoak eta estandarizatuak erabiltzea komeni da, esku-hartze proposamenak sendagoak izan daitezten.

Lehen faseari **Garapenaren Ohiko Zaintza** esango diogu; eta zaintza horren ondoriozko jardunei –betiere emaitzak aintzat hartuta balorazio zehatzagoa egin behar bada–, aldiz, **Detekzio Espezifikoa**. Bi faseen detekzio-prozesua osatzen dute eta prozesu hori hezkuntza-jardunaren ohiko eremuan txertatu behar da.

Hurrengo koadroan, **Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaren** faseak zeintzuk diren azalduko dugu labur-labur, bai eta dela zuzenean edo aholkularitza-lanetan, zein eragilek parte hartzen duten.

²Artigas-Pallarés, J. Intervención temprana en los trastornos del neurodesarrollo, 455-467 or. .

Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil




3. Vigilancia Rutinaria del Desarrollo

Como se ha explicado, la Vigilancia Rutinaria del Desarrollo es la primera fase del Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil. Será llevada a cabo por los tutores y tutoras de Educación Infantil, siempre con el asesoramiento del profesorado consultor. Para su implementación se utilizarán las EODIs en las condiciones que seguidamente se señalan.

3. 1. Escalas de Observación del Desarrollo Infantil (EODIs)

Las indudables ventajas de los procesos de cribado, a las que hemos hecho referencia, no han impedido considerar algunos de sus posibles efectos indeseados. El que generaba una mayor preocupación entre

Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa



3. Garapenaren Ohiko Zaintza

Azaldu dugunez, Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaren lehen fasea Garapenaren Ohiko Zaintza da. Haur Hezkuntzako tutoreek egingo dute, irakasle aholkularien laguntzarekin. Zaintza hori ezartzeko, HGBEaz baliatu behar dira, jarraian aipatuko ditugun baldintzetan.

3. 1. Haurren Garapena Behatzeko Eskalak (HGBEak)

Goian aipatu ditugu baheketa-prozesuek zer abantaila eskaintzen dituzten, abantaila horiek ezin dira zalantzan jarri, baina hala ere, nahi gabeko ondorioak izan ditzakete eta horiek ere aintzat hartu behar

los miembros del **Equipo de Atención Temprana**³del Departamento era el que de su aplicación se derivara un etiquetaje apresurado, impropio de un instrumento de *screening*. Una deducción de estas características podría cuestionar el propio desarrollo del niño o niña, reduciendo las expectativas sobre su evolución. Por esa razón y por la necesidad igualmente de contar con un instrumento que fuera flexible y respondiera a los patrones y ritmos evolutivos del alumnado, se tomó la decisión de elaborar unas escalas de observación que permitieran, además, la identificación de signos de alerta en el desarrollo. También se han tenido en cuenta indicadores del desarrollo para aquel alumnado que pudiera presentar un desarrollo precoz, por encima de lo esperado en función de su edad. Estas escalas tendrían el valor de guía para la observación del desarrollo, sin que de ellas pudieran derivarse etiqueta alguna.

Naturalmente, las conductas que se contemplaran deberían ser observables en el ámbito educativo y ser comprensibles para los distintos profesionales que intervienen en Educación Infantil, especialmente para las tutoras y tutores. Finalmente, tendrían que tener una significación educativa, esto es, deberían servir a los profesionales de Educación Infantil en el desarrollo de sus funciones y tareas. Con esos criterios como guía se decidió construir las Escalas.

La construcción tuvo tres fases diferenciadas. En la primera el Equipo de Atención Temprana del Departamento realizó una versión preliminar a partir de diversas fuentes. Entre las más relevantes, y sin perjuicio de su consulta más precisa en la bibliografía temática, se encuentran las que figuran a continuación:

- **Aprende los signos**, del National Center on Birth Defects and Developmental Disabilities, de EE.UU
- **Developmental Checklist Birth to Five**, The early childhood direction center
- **Criterios de Calidad Estimular**, de la Región de Murcia
- **Guía del Desarrollo Infantil desde el nacimiento hasta los 6 años**, de la Federación Estatal de Asociaciones de Atención Temprana

Por otra parte, los ítems agrupados bajo el epígrafe “Desarrollo precoz”, son una elaboración del **Berritzegune Nagusia**, con la colaboración de M^a Luz Pérez, Izaskun Etxeberria, Marta Santarén y Belén Uriarte. Las fuentes utilizadas para su elaboración pueden consultarse, igualmente, en la bibliografía temática.

En una segunda fase, que llamamos **Panel**, la versión preliminar se sometió a la consideración de las Asesorías de Necesidades Educativas Especiales, las de Educación Infantil, así como de otros y otras profesionales de la fisioterapia, audición y lenguaje, discapacidad auditiva y discapacidad visual. También se contó con la inestimable colaboración de la Profesora de la UPV, Elena Herrán. Con sus aportaciones se construyó una segunda versión de las Escalas, que fue la que se sometió a pilotaje.

La tercera fase fue precisamente la del **Pilotaje**. Las Escalas se pusieron a prueba en doce centros de la CAPV, con más de 1000 alumnos y alumnas de Educación Infantil. Los centros figuran a continuación y su referencia en este texto es una muestra de gratitud por el esfuerzo realizado.

³Este Equipo fue creado el curso 2012-13. Estaba integrado solo por las asesorías de NEE, consultores de atención temprana en los EVAT territoriales. Posteriormente, en septiembre de 2014, se integraron las asesorías de Educación Infantil.

dira. **Arreta Goiztiarren Taldeko**³ kideengan kezkarik handiena, baheketa-prozesuak aplikatzeagatik etiketak azkarregi ezartzearena da, *screening* tresna batek egin behar ez duena egitea, alegia. Horrelako dedukzio bat eginez gero, haurraren garapena bera zalantzan jar daiteke eta haren bilakaerari buruzko espektatibak murriztu, ondorio kaltegarria eta bat ere beharrezkoa ez dena. Horregatik, ikasleen bilakaeraren erritmo eta ereduen arabera, behaketa-eskalak prestatzea erabaki da, garapenean alerta-zantzuak identifikatzeko aukera ere emango dutena bai eta, garapen goiztiarra izan dezaketen ikasleen garapen-adierazleak ere aintzat hartu dira, adinaren arabera espero zitekeena baino garapen-maila handiagoa duten ikasleen kasurako, alegia. Eskala horiek garapena behatzeko gida izango da, baina horien ondorioz ezin izango da etiketarik ipini.

Noski, Haur Hezkuntzan esku hartzen duten profesionalentzat, batik bat, tutoreentzat aintzat hartu beharreko jokabideak behagarriak eta ulergarriak izan beharko lirartekeela garbi zegoen. Haur Hezkuntzako profesionalentzat euren eginkizun eta lanak garatzeko baliagarri izan beharko dutenak. Irizpide horiei jarraiki, Eskalak taxutzea erabaki zen.

Taxutze-prozesuak hiru fase izan zituen. Lehen fasean, *Arreta Goiztiarreko Taldeak* hainbat iturri abiapuntu hartuta, aurretiazko bertsioa egin zuen. Honako hauek dira iturri garrantzitsuenak.

- *Ikasi keinuak*, AEBetako National Center on Birth Defects and Developmental Disabilities
- *Developmental Checklist Birth to Five*, The early childhood direction center
- *Criterios de Calidad Estimular*, Murtziako Eskualdea
- *Guía del Desarrollo Infantil desde el nacimiento hasta los 6 años*, Arreta Goiztiarren Elkarten Espainiako Federazioa

Bestalde, "Garapen goiztiarra" epigrafean bildutako itemak **Berritzegune Nagusiak** landu ditu, honako hauen laguntzarekin: M^a Luz Pérez, Izaskun Etxeberría, Marta Santarén eta Belén Uriarte. Hori egiteko erabilitako iturriak ere gaikako bibliografian kontsulta daitezke.

Bigarren faseari **Panela** esaten diogu; fase horretan, aurretiazko bertsioa Hezkuntza Premia Berezien Haur Hezkuntzako aholkularitzek aztertu zuten, bai eta fisioterapiaren, entzumen eta hizkuntzaren, entzumen- eta ikusmen-desgaitasunaren eremuetako profesionalak ere. Elena Herrán EHUko irakasleak ere laguntza handia eman zigun. Haren ekarpenei esker Eskalen bigarren bertsioa osatu genuen, eta bertsio hori hartu zen pilotajerako.

Hirugarren fasea, hain zuzen, **Pilotajea** izan zen. EAeko hamabi zentrotan jarri genituen proban Eskalak, Haur Hezkuntzako 1.000 ikasletik gora hartuta. Hona hemen zentroen izenak, egin duten lan handiarengatik eskerrak emateko gure modua xumea izango baita.

³ Talde hori 2012-13 ikasturtean sortu zen. Lurralde bakoitzeko Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantaldeetako arreta goiztiarreko HPBko aholkulariak soilik hasi ziren biltzen. Aurrerago, 2014ko irailean, Haur Hezkuntzako aholkulariak ere sartu ziren.

Centros participantes en la fase de Pilotaje

CEIP José Miguel Barandiarán HLHI (Iruña Oka)
CPI Mendialdea IPI (Kanpezu)
CEIP Pedro Ignacio Barrutia Ikastola LHI (Vitoria-Gasteiz)
CPEIPS Pedagógica San Prudencio HLBHIP (Vitoria-Gasteiz)
CPEIPS Eguzkibegi Ikastola HLBHIP (Galdakao)
CPI Soloarte IPI (Basauri)
CEIP Zamakola-Juan Delmás HLHI (Bilbao)
CPEIPS Abusu Ikastola HLBHIP (Bilbao)
CEIP Intxaurren Hegoa LHI (Donostia-San Sebastián)
CPEIS Zurriola Ikastola / Barandiaran HLBHIP (Donostia-San Sebastián)
CEIP Kurtzebarri HLHI (Aretxabaleta)
CPEIPS Txantxiku Ikastola HLBHIP (Oñati)

Con los resultados del Pilotaje, se construyó la versión actual de las **Escalas de Observación del Desarrollo**, que en esta última versión sumaron la palabra **Infantil** al título original.

Naturalmente, la puesta en marcha de la **Vigilancia Rutinaria del Desarrollo** exige de la formación previa de los agentes que van a participar en ella de manera directa o en tareas de asesoramiento. El cuadro que sigue a continuación resume el proceso seguido.

La aplicación de las EODIs seguirá las instrucciones y recomendaciones recogidas en el punto 4.2.4.

Pilotaje fasean parte hartu duten zentroak

HLHI José Miguel Barandiarán (Iruña Oka)

IPI Mendialdea (Kanpezu)

HLHI Pedro Ignacio Barrutia Ikastola (Vitoria-Gasteiz)

HLBHIP Pedagógica San Prudencio (Vitoria-Gasteiz)

HLBHIP Eguzkibegi Ikastola (Galdakao)

IPI Soloarte (Basauri)

HLHI Zamakola-Juan Delmás (Bilbo)

HLBHIP Abusu Ikastola (Bilbo)

HLHI Intxaurren Hegoa (Donostia)

HLBHIP Zurriola Ikastola / Barandiaran HLBHIP (Donostia)

HLHI Kurtzebarri (Aretxabaleta)


HLBHIP Txantxiku Ikastola (Oñati)

Pilotajearen emaitzetan oinarrituta, **Garapena Behatzeko Eskalen** egungo bertsioa eratu genuen, eta azken bertsio honetan, hasierako izenburuari **Haurren** hitza gehitu diogu.

Esan gabe doa **Garapenaren Ohiko Zaintza** abiarazteko, prozesu horretan zuzenean edo aholkularitza-lanetan parte-hartu behar duten eragileek alde aurretik prestakuntza jaso behar dutela. Hurrengo koadroan laburtu dugu jarraitu genuen prozesua.

HGBEak aplikatzeko garaian, 4.2.4 puntuan bildutako jarraibide eta gomendioei jarraitu behar zaie.


Formación para la Vigilancia Rutinaria del Desarrollo (VRD)



4. Detección Específica

El proceso de Detección Específica se pone en marcha cuando, tras la aplicación de la EODI correspondiente, no se han observado *tres o más de tres ítems* en un Área, o *dos o más ítems* en dos Áreas. Otra razón para iniciar este proceso es la observación de signos de alerta (que normalmente cursarán con la falta de adquisiciones señalada anteriormente). En estos casos, se demandará la

Garapenaren Ohiko Zaintzarako formakuntza




4. Detekzio Espezifikoa

Detekzio espezifikoaren prozesua noiz abiarazten da? Dagokion HGBEa aplikatu ostean, Arlo batean *hiru item edo gehiago* edo bi Arlotan *bi item edo gehiago* betetzen ez direnean. Alerta-seinaleak behatzen direlarik ere prozesua abiarazi egiten da (ohiko moduan, lehen aipatu dugun eskuratzeeza gertatuko da). Kasu horietan, irakasle aholkulariei laguntza eskatuko zaie eta haiek, aldi berean,

colaboración del profesorado consultor que, a su vez, contará con la asesoría de NEE. Esta indicará el proceso a seguir, incluyendo las pruebas o herramientas para utilizar, en su caso.

El cuadro que sigue a continuación pretende resumir el proceso mencionado.


Resumen del proceso de Detección Específica



HPBko aholkularitzaren laguntza ere izango dute. Aholkularitza horrek zer prozesu jarraitu behar den adieraziko du eta, hala badagokio, zein tresna edo proba erabili behar diren ere bai.

Hurrengo koadroan laburtu dugu jarraitu beharreko prozesua.

Detekzio Espezifikoaren prozesuaren laburpena



5. Valoración e intervención educativas

La *intervención debe comenzar en cuanto se observe la ausencia de las conductas sometidas a observación (con independencia de cuántas sean) o la presencia de señales de alerta*. Dicho de otro modo, no es necesario ni conveniente esperar para comenzar a intervenir si se ha apreciado alguna dificultad en el desarrollo. Para ello el profesorado tutor dispondrá del asesoramiento del profesorado consultor y solicitará la colaboración de la familia.

Si se cumplen las condiciones para iniciar el proceso de **Detección Específica**, se contará con la intervención del consultor o la consultora y también con el asesoramiento psicopedagógico de las asesorías de NEE.

La asesoría de NEE, en colaboración con los agentes educativos del centro que están interviniendo, orientará sobre si tras las pruebas de cribado es necesaria una **valoración psicopedagógica**, en cuyo caso se seguirá el procedimiento actualmente vigente. En todo caso, la intervención sobre las conductas motivo de preocupación debe continuar hasta que la asesoría de NEE ofrezca orientaciones más específicas al respecto, como resultado de esa valoración psicopedagógica.

La colaboración con las familias debe estar presente en todas las fases de este proceso.

6. La derivación a otros servicios

El ámbito de la Educación Infantil puede ser especialmente fecundo desde el punto de vista de la detección e intervención tempranas. De acuerdo con el **Modelo de Atención Temprana de la CAPV⁴** y los desarrollos posteriores que se vayan precisando, el sistema sanitario y el social, además del educativo, estarán presentes y concurrirán con sus servicios en el **Equipo de Valoración de Atención Temprana (EVAT)**, una estructura territorial situada en los servicios sociales especializados de las Diputaciones Forales e integrada en el servicio de **Intervención Social en Atención Temprana**. Este Equipo ya está funcionando en Bizkaia y Gipuzkoa.

Otra estructura de coordinación intersistemas derivadas del Modelo es la **Comisión Interinstitucional de Atención Temprana**. Esta comisión, entre otras tareas, está elaborando los protocolos de derivación y consulta entre los tres sistemas. En tanto no estén disponibles y dada la diversidad existente entre las instituciones en cuanto a procedimientos de acceso a sus servicios, se recomienda encarecidamente *no realizar derivación alguna sin el conocimiento de la asesoría de NEE*.

En todo caso, una vez puesto en marcha este Protocolo, las posibles derivaciones solo se realizarán tras la fase 2, esto es, tras la **Detección Específica**. La asesoría NEE estudiará la demora de la derivación si prevé la realización de una valoración psicopedagógica de manera inmediata.

Es necesario señalar (la experiencia de funcionamiento de los EVAT así lo demuestra) que la derivación no fundamentada, además de generar en las familias expectativas difíciles de abordar, puede colapsar los servicios de **Intervención Social en Atención Temprana**.

⁴http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/escuela_inclusiva.html.

5. Hezkuntza arloko balorazioa eta esku-hartzea

Esku-hartzea, behatu beharreko jokabide baten edo batzuen gabezia hauteman orduko jarri behar da abian edo alerta seinaleak agertzen direnean. Bestela esateko, ez da beharrezkoa eta ez da komeni esku-hartzea abiarazteko zain egotea garapenean zailtasunen bat sumatu baldin bada. Horretarako, irakasle tutoreek irakasle aholkularien laguntza izango dute, eta familiari ere elkarlanean jarduteko eskatuko diote.

Detekzio Espezifikoaren prozesua hasteko baldintzak betetzen badira, aholkulariak ez ezik, HPBko aholkularitza psikopedagogikoek ere esku hartuko dute.

Ikastetxeko hezkuntza-eragileen artetik esku hartzen ari diren eragileen laguntzarekin, HPBko aholkularitzak zehaztu beharko du baheketa-probak egin ostean **balorazio psikopedagogikoa** egin behar ote den; egin behar bada, egun indarrean dagoen prozedurari jarraitu behar zaio. Nolanahi ere, kezka-iturri diren jokabideen gaineko esku-hartzeak jarraitu egin behar du HPBko aholkularitzak – balorazio psikopedagogiko horren ondorioz– orientabide zehatzagoak ematen dizkigun arte.

Familiekin elkarlanean jardun behar da prozesuaren fase guzti-guztietan.

6. Beste zerbitzu batzuetara bideratzea

Haur Hezkuntzaren eremua bereziki emankorra izan daiteke detekzio eta esku-hartze goiztiarren ikuspegitik begiratuta. **EAEko Arreta Goiztiarreko Ereduari**⁴ eta gerora zehazten diren garapenei jarraiki, osasun- eta gizarte-sistemek hezkuntza-sistemearekin batera parte hartu eta jardun behar dute euren zerbitzuekin **Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldean (AGBT)**. Balorazio talde hori Foru Aldundietako gizarte-zerbitzu espezializatuetan kokatutako lurralde-egitura izaten da, eta **Arreta Goiztiarreko Gizarte Esku-hartzearen** zerbitzuan txertatuta dago. Talde hori martxan dago jada Bizkaian eta Gipuzkoan.

Arreta Goiztiarreko Erakunde arteko Batzordea ereduak eragindako sistema arteko koordinaziorako beste egitura bat da. Batzorde hori, besteak beste, hiru sistemen artean bideratzeak eta kontsultak egiteko protokoloak lantzen ari da. Baina prest ez dauden bitartean, eta erakunde bakoitzeko zerbitzuetara jotzeko modua desberdina denez, biziki gomendatzen dugu *kasurik ez bideratzea HPBko aholkularitzak horren berri ez badu.*

Nolanahi ere, Protokoloa abiarazitakoan, kasuak 2. fasea –hau da, **Detekzio Espezifiko**a amaitu ostean soilik bideratu ahal izango dira. HPBko aholkularitzak bideratzea atzeratu ote daitekeen aztertuko du, balorazio psikopedagogikoa berehala egin behar dela aurreikusiz gero.

Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeen eskarmentua aintzat hartuta, ziur esan dezakegu funtsik gabe eragindako bideratzeen ondorioz **Arreta Goiztiarreko Gizarte Esku-hartzearen** zerbitzuak kolapsatzeaz gain, senitartekoengan gaintzeko zailak diren espektatibak eragiten direla.

⁴http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100014e_modelo_atencion_temprana.pdf.

7. La participación de las familias

En el ámbito educativo nada debería hacerse sin la participación de las familias. En realidad, esta afirmación es ampliamente compartida por el profesorado de la Etapa Infantil, como lo demuestra el contacto cotidiano con los padres y madres.

Las familias deben ser informadas al comienzo de curso sobre la observación que se llevará a cabo en el periodo establecido (ver el punto 4.2.4.2.). Debe explicarse como un momento de reflexión sobre el desarrollo de los niños y niñas de la clase y que se llevará a cabo en todas las aulas de Educación Infantil (EI) de la CAPV. Es importante que no se denomine **pase de pruebas**, porque ni se trata de eso ni deseamos crear expectativas irreales. El objetivo es prestar una mayor atención al desarrollo evolutivo de todo el alumnado, de manera que pueda detectarse cualquier cambio significativo en ese proceso. **No requiere ningún tipo de permiso, puesto que lo que se observa guarda una estrecha relación con el propio currículo de la Etapa y está pensado para todo el alumnado.**

Tras la observación, se les informará de los resultados en las reuniones ordinarias que se tengan con las familias al final del trimestre. El contacto con las familias podrá anticiparse si existen dudas o discrepancias sobre los resultados de la observación realizada.

8. Instrucciones y recomendaciones para la utilización de las EODIS

8.1. Ámbito de aplicación

Todo el alumnado de las aulas de 2, 3, 4 y 5 años, sin exclusión ni excepción alguna.

8.2. Intervalo temporal de aplicación

- **Cuatro y cinco años:** la observación se realizará en el intervalo de tiempo comprendido entre el 1 de Noviembre y el 20 de Diciembre.
- **Dos y tres años:** la observación se realizará en el intervalo de tiempo comprendido entre el 1 de Febrero y el 15 de Marzo.

En ambos casos y de manera excepcional, el periodo de observación podrá ampliarse dos semanas más.

8.3. Condiciones físicas y del entorno

La aplicación de estas Escalas no requiere condiciones físicas especiales ni entornos específicos, distintos de los que pueden encontrarse en un centro educativo.

7. Familien parte-hartzea

Hezkuntza-eremuan, ez litzateke ezertxo ere egin behar familien parte-hartzerik gabe. Egia esan, baieztapen horrekin bat datoz Haur Hezkuntzako irakasle gehienak, gurasoekiko eguneroko harremanak adierazten duenez.

Ikasturtearen hasieran, aldi jakin batean behaketa egingo dela jakinarazi behar zaie familiei (ikus 4.2.4.2 puntua). Gelako haurren garapenari buruzko hausnarketa egiteko unea dela azaldu behar da, eta EAEko Haur Hezkuntzako (HH) ikasgela guzti-guztietan egingo dela. Oso garrantzitsua da **probaldia** izena ez erabiltzea, ez delako hori eta ez dugulako nahi espektatiba irrealik sortzea. Helburua zera da, ikasle guztien bilakaeraren garapenari arreta handiagoa ematea, prozesu horretan gerta daitekeen aldaketa esanguratsu oro detektatu ahal izateko. **Ez da inolako baimenik eskatu behar, behatzen den horrek zerikusi handia baitu Etapako curriculumarekin, eta ikasle guzti-guztientzat pentsatuta baitago.**

Behaketaren ondoren, familiei emaitzen berri emango zaie hiru hilekoaren amaieran izaten diren ohiko bileretan. Egindako behaketaren emaitzei buruz zalantzarik izanez gero edo desadostasunik sortuz gero, baliteke familiarekin lehenago jartzea harremanetan.

8. HGBEak erabiltzeko jarraibide eta gomendioak

8.1. Aplikazio-esparrua

2, 3, 4 eta 5 urteko geletako ikasle guzti-guztiak, inolako salbuespenik gabe.

8.2. Aplikazioaren denbora-tartea

- **Lau eta bost urteko gelak:** azaroaren 1etik abenduaren 20ra bitarteko aldian egingo da behaketa.
- **Bi eta hiru urteko gelak:** otsailaren 1etik martxoaren 15era bitarteko aldian egingo da behaketa.

Bi kasuetan eta salbuespen moduan, behaketaldia beste bi astez luzatu ahal izango da.

8.3. Baldintza fisikoak eta inguruneak



Eskala horiek aplikatzeko ez da baldintza fisiko berezirik behar, ez eta ingurune espezifikorik ere, edozein ikastetxetan ditugun baldintzekin aplikatu ahal izango ditugu Eskalak.

Solo uno de los ítems del **Área del desarrollo motor y físico**, el nº 3 de las versiones para **dos, tres y cuatro años**, referido a subir y bajar escaleras exige, naturalmente, disponer de esa infraestructura.

2 años		3 años		4 años	
3	Sube y baja escaleras apoyándose en la barandilla o pared.	3	Sube y baja escaleras con apoyo alternando los pies.	3	Sube y baja escaleras alternando los pies.

8.4. Materiales necesarios

Los materiales precisos para la observación de las conductas recogidas en las Escalas son los que habitualmente pueden encontrarse en un aula o centro de Educación Infantil. Sin embargo, durante el pilotaje las profesoras y profesores hicieron repetidas preguntas sobre los cubos, ítems nº 17 en dos y tres años. Al parecer se trata de elementos menos frecuentes en las aulas de lo esperado, aunque accesibles. Las medidas de los cubos deberían encontrarse entre los 2.5 y los 5 cm. No deben utilizarse cubos encajables.

2 años		3 años	
3	Construye torres de más de cuatro cubos.	3	Construye torres de más de seis cubos.
			

8.5. Orden y contenidos de la aplicación

Aunque las Escalas siguen el orden más frecuente de presentación de las Áreas del Desarrollo la observación no tiene por qué seguir ese mismo orden. Se recomienda, sin embargo, no fraccionar las Áreas, de manera que no se inicie la observación de un área sin haber terminado la anterior. Igualmente, debería evitarse dilatar en exceso el tiempo de observación, que no debería superar las cuatro semanas. Una observación planificada debe permitir una mayor precisión y un menor consumo de tiempo.

Garapen motor eta fisikoaren arloko itemetako batek soilik eskatzen du azpiegitura jakin bat izatea; hain zuzen ere, **bi, hiru eta lau urteko geletarako** bertsioetan 3 zenbakia duen itemak, eskailera igo eta jaisteari buruzkoa baita eta, beraz, eskailera izan behar dira horretarako.

2 urte		3 urte		4 urte	
3	Eskaileretan gora eta behera ibiltzen da barandari edo hormari eutsita.	3	Laguntzarekin eskaileretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da.	3	Eskaileretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da.

8.4. Behar diren materialak

Eskaletan bildutako jokabideak behatzeko behar diren materialak Haur Hezkuntzako ikastetxe edo ikasgela batean erraz aurki daitezke. Alabaina, pilotaje-prozesuan, zenbait irakaslek kuboei buruzko galderak errepikatu zituzten, bi eta hiru urteko geletarako 17 zenbakia duen itema. Antza, ikasgeletan guk uste baino gutxiago erabiltzen dituzte elementu horiek, baina erraz lortzeko modukoak dira. Kuboek 2.5 eta 5 cm bitartekoak izan beharko lukete. Kubo ahokagarriak ez dira erabili behar.

2 años		3 años	
3	Lau kubo baino gehiagoko dorreak eraikitzen ditu.	3	Sei kubo baino gehiagoko dorreak eraikitzen ditu.

8.5. Aplikazioaren ordena eta edukiak

Eskalek garapen-arloen ohiko agerpen-ordenari jarraitzen dieten arren, behaketak ez dio ordena horri zertan jarraitu. Guk arloak ez zatikatzea gomendatzen dugu, hau da, ez hasi arlo baten behaketarekin aurreko arloarena ez bada bukatu. Aitzitik, behaketaldia gehiegi luzatzea ere ez da komeni; gehienez lau aste nahikoak dira. Behaketa planifikatuta egiten bada, denbora gutxiago kontsumituta zorrotasun handiagoz beha daiteke.

Deben cumplimentarse las cuatro Áreas del Desarrollo siempre, en todos y cada uno de los casos:

- Motor y físico
- Personal y social
- Perceptivo-cognitivo y de resolución de problemas
- Lenguaje y comunicación

Los ítems sobre Desarrollo Precoz, sin embargo, **no deben cumplimentarse en todos los casos**. Solo debe hacerse si, tras la observación de las cuatro Áreas, se considera que un alumno determinado o alumna determinada presenta señales de un desarrollo precoz o claramente por encima de lo esperado en función de su edad.

Las **Señales de Alerta, tampoco deben cumplimentarse**. Se trata de indicadores para valorar la relevancia de la presencia o ausencia de determinadas conductas, estrechamente relacionadas con alteraciones del desarrollo. Por lo tanto, solo en el caso de que no se observe una determinada conducta de las consideradas en las Escalas o, por el contrario, se detecte una conducta con notable impacto negativo en la vida del niño o la niña y/o en la de sus compañeros o compañeras, habría que comprobar si aparece entre las Señales de Alerta. El asesoramiento del consultor/a es aconsejable siempre en estos casos.

8.6. Formatos disponibles

El tutor/a dispondrá de las Escalas en tres formatos distintos:

- La individual/curso
- La grupal / curso
- La individual/cuatro cursos

La elección dependerá del centro. Sin embargo, debe tenerse en cuenta que el uso exclusivo de la versión grupal/curso no permitiría la custodia de los resultados en la carpeta de la alumna o el alumno, por lo que con independencia del formato usado para la observación, debería asegurarse que la información individual queda recogida en el historial del alumnado. Para ese propósito, el formato individual, o individual-cuatro cursos serían los adecuados.

8.7. Observación del lenguaje

La existencia de dos lenguas cooficiales en el País Vasco (y la cada vez más frecuente introducción de una tercera lengua, normalmente el inglés), exige la adopción de medidas de flexibilización, sobre todo en la valoración del desarrollo del lenguaje y la comunicación, dado que en ocasiones la lengua de aprendizaje no coincide con la lengua materna.

Garapenaren lau arloak bete behar dira kasu guzti-guztietan:

- Motorra eta fisikoa
- Pertsonala eta soziala
- Pertzepzioa-ulermena, eta arazoak konpontzea
- Hizkuntza eta komunikazioa

